

# Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA ETA ARGAZKIAK:  
AMAIA ETA EDURNE GARTZIA

Hernio mendia (Gipuzkoa)

## Lur azpiko izarren artean



Espeleologia arrisku kirola dela pentsa dezake hainbatek, baina beldurrak alde batera utzi eta Hernioko Sagain zelaiko koba barrutik bisitatzea proposatu nahi dizuegu. Zailtasunik gabeko koba da eta edozeinek egin dezake, beti ere klaustrofobiarik ez badu, iluntasunaren beldur ez bada, eta lohiaz zikintzeari erreparorik jartzen ez badio. Hori bai, adituren batekin joatea ezinbestekoa da hasiberrientzat.

Euskal Herria leku ederra da espeleologoentzat, leizez josita baitaude gure inguruak. Sarrera bertikala duten leizeak dira nagusi, Sagain zelaiko koba horien artean. Bertaratu aurretik, beharrezko materiala bildu dugu: bururako linterna frontala –adituek *karburero* deiturikoak erabiltzen dituzte–, uretako botak, laneko buzoa edo arropa zaharrak, eskularruak eta kaskoa. Behin materialak hartuta, lau lagunek Asteasu aldera egin dugu. Autoa herriko San Joan eliza ondoan utzi eta hamaiketakoa egin dugu, kobazulo barnean ezingo baitugu jan. Josu eta Mirari dira koban zehar gidatuko gaituztenak eta euren argibideak jarraituz, ahalik eta pisu eta bolumen gutxien eramateko materiala bi motxilatari banatu dugu, koban arrastaka eta tarte txikietan barrena ibili beharko dugu eta.

Haitzuloak sortzeko prozesuari buruz ere ikasi dugu zerbait: modu asko daude, baina denetan arruntena formazio karstikoak sorrarazten dituen da. Lur karstikoetan harriak buztin lehorren itxura du eta zuloz beteriko lurra da, iragazkorra. Bertan eroritako urak ez du nora joanik eta lur azpira jotzen du zuzenean. Hala, kareharria disolbatu egiten da, eta milaka urte irausten duen prozesuaren buruan, lur azpitik doazen urek pasabide sarea sortzen dute.

### Kobazuloko sarrerarantz

Asteasutik ateratzeko, bi biderekin egin dugu topo: bata ermitaren ezke-

## Ez galtzeko, eskuineko horma gidari

Kobazulora sartu eta berehala bidegurutze bat topatu dugu eta konturatu gara honezkero ez genukeela kobazulotik ateratzen asmatuko. Galdera egin diegu gure gidarei: nola aztertzen dira kobak? Nola egin ez galtzeko? Azaldu digutenez, mendian bezala mugarrak jar daitezke. Dena den, kobazuloa lehenengo aldiz aztertzerakoan, espeleologoek ohitura bat dute: beti eskuin horma jarraitzea. Azalpen hau hobeto ulertzeko, eskua zabaldu eta adierazi digute: “Pentsa eskumuturra kobazuloaren sarrera dela, eta behatz bakoitza galeria bat. Eskuinaldetik hasten bagara, eta beti eskuineko aldea jarraituz mugitzen bagara eskuan zehar, eskumuturreko beste aldera iritsiko gara, galeria guztiak zeharkatuta”.

rraldetik Hernioko tontorrera doa eta besteak, errepidearen norabidea jarraituz, ordu erdian kobazuloraino eramane gaitu. Zuhaitz baten azpian eta hesi batez inguratuta, sarrera zaila du kobak, juxtu harritzko bordara iritsi aurreko zelaian, Sagain zelaian.

Batzuek linterna frontalak jarri ditugu eta besteek *karbureroak*. *Karbureroa* bi zatitan banatzen da: batean karburoa dago eta bestean ura. Pizterakoan, urari bidea irekitzen zaio eta ura, tantaka-tantaka, karburoarekin elkartzen da, erreazio kimiko bidez gasa sortuz. Gasa izango da kaskoaren aurrealdean sua sortuko duen erregaia. Beraz, zenbat eta ur gehiago pasatzen utzi, orduan eta su eta argi gehiago izango ditugu.

Kobazulora jaisten hasi gara. Hasierako malda piko handikoa da eta poliki jaisteko aholkua eman digute gidariek, lohiarekin irrist egiteko arriskua baitago. Bat-batean,

ezerezetik sortuta dirudien koba handi bat ikusi dugu eta aho bete hortz utzi gaitu. Haize korrante hotza nabari da eta kanpoko hogeita hamar graduetatik gutxi gorabehera hamabostera jaitsi da tenperatura. Buzoak eta botek jada ez digute berorik ematen.

### Lurrean arrastaka

Ibiltzeari ekin diogu, begiak iluntasunera ohitu bitartean. *Karburero*duinak lehenengo eta azken doaz, besteok argi gehiago izan dezagun. Galerietan barrena murgildu gara, eta halako batean, hurrengora igarotzeko pasabide txiki-txiki bat baino ez dagoela ikusi dugu. “Nola sartuko gara gu hor? Ezinezkoa da!”, diogu harrituta. Gidariak, ordea, sartzen hasi dira, lurrean etzan eta arrastaka, beso bat aurretik eta bestea atzetik, hurrengo galeriaraino. Azkenean, oihu eta algara artean, ekin diogu guk ere. Zikintzeari errepa-

Sagain zelaia. Erdiko zuhaitzen ondoan dago kobazuloko sarrera.





Goian: espeleologoa bere burua ongi prestatzen —ezkerrean—, kobazulora sartu aurretik —eskuinean—. Behean: Sagain zelaiko koba ez dago estalaktita faltan.

tazioa izan dugu, baina segituan ohartu gara ez genukeela hori egin behar, ehun bat urte behar izaten baititu estalaktita batek zentimetro bat luzatzeko.

Argiak itzali eta sakontasunak emandako iluntasunean egon gara minutu pare batez. Tantak entzunez, hezetasunak inguratuta, harriak sentituz, eta orientazioa erabat galdua dugula. Bizipen itzela izan da, dudarik gabe.

### Inuzente

Bideari ekin diogu berriz eta laguntza-seinaleak ikusten hasi gara. Gezi batek adierazi digu ondo goazela, eta alboko bidea X batez markatuta dago; sabaia erorita duen galeria bat izango da. Beste zenbait bide estu zeharkatu ostean, Inuzenteen galeriara iritsi gara. Mirarik eta Josuk diote eurek ikusita dutela galeria eta gu sartzeko gonbitea egin digute, ikaragarria omen baita bertan dagoena. Lehenengoa abiatu da pasabidean barrena, baina zutitu denean hara non ez dagoen ezer galerian! Okerrena ez da hori ordea, barrutik kanpora

roa zionak ahaztu du lohia, eta lur hezea besarkatuz igaro dugu pasabidea, trabatuta ez geratzeko esperantzarekin. Gezurra zirudien arren, uste baino errazagoa izan da, eta goitik behera bustita egonagatik esperientzia zirrargarria izan da. Gure algarak dira arroken oihartzun bakarra.

Aurrean dugun galeria estalaktita eta estalagmitez josia dago. Orain

bai, harri eta zur begiratu dugu paisaia. Izugarri polita da dena, eta dir-dira eta ur tanta hotsak dira nagusi. Tanta horiek sorturiko estalaktitak kobazulo sabaian behera luzatzen dira, kaltzio karbonatoak ematen dien kolore bereziarekin. Luzeak, motzak, gortina formakoak, zilindrikoak... Estalaktita gehienek ur tanta dute muturrean. Tanta ukitzeko ten-

## Datu teknikoak

**Izena:** Sagain zelaiko koba  
**Luzera:** 1.220 metro  
**Sakonera:** 30 metro  
**Mendia:** Hernio  
**Ingurua:** Gazume  
**Koordenadak:**  
**X:** 569414; **Y:** 4782282;  
**Z:** 670  
**Udalerria:** Asteasu

irteteko zuloa estutu egin dela baitirudi beste aldetik.

Kobazuloa ikertzen jarraitu dugu eta laku batekin egin dugu topo, ezusteko bikaina. Berau inguratu eta haizuloan aurrera Esnebide galeria dugu buruan, hau omen da denetan ikusgarriena. Zenbait pasabide estu zeharkatu ondoren, azkenik iritsi igara Esnebide sarrerara. Ez da sarrera erraza, amildegi baten ertzetik gora doa. Arrastaka egin behar da bide osoa eta itzuleran pentsatzeak beldurra ematen du, baina dudarik gabe, merezi du ahaleginak: horma eta sabaiairen dirdirak betetzen du lekua; milaka mineralen argiak ikusi ditugu dantzan, izarrak bailiran.

### Mugarriei segika kanporantz

Orduak aurrera egin dutela ohartu gara eta itzultzeko garaia dela erabaki dugu. Etorreran mugarriak jartzen joan gara eta ez da zaila izango irtetea. Kanporantz goazela saguzarren gorotza topatu dugu lurrian. Asko bizi omen dira kobazuloan, baina guk ez dugu bakar bat ere ikusi, lastima. Beste bisitari batzuen arrastoak ere ikusi ditugu, seinaleak, mugarriak eta buztinez egindako irudi bitxiak—horman itsatsitako aurpegiak—. Halako batean, argia ikusten hasi gara, eta begiak berriz ere ohitu beharrean daude. Sarrerara iritsi eta lur azalera igotzerakoan beroak ezustean harrapatu gaitu. Lohiaz erabat estalita gaude eta nekea da nagusi, baina denak ados gaude: esperientzia bikaina izan da. ■

**EUSKADI BTT-N**

**NATURA  
KULTURA  
GASTRONOMIA  
KIROLA**

**Zure bizikleta  
prestatu!  
Zatoz euskadiko  
BTT zentroetara**

**btt euskadi**  
zentroak centros

**www.paisvascoturismo.net**

**ibilbideak beheka kargatu  
Descárgate las rutas**

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**  
INDUSTRIA, MERKATUA  
ETA TURISMO SAILA  
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
COMERCIO Y TURISMO

**euskadi**  
atsegin handi  
EUSKAL TURISMO SAILA